

noaua

**Carme Forcadell,
Udalarekin esker onez**

**Errigorako otarrak
eskatzeko garaia da**

**Tokikom Sariak
Usurbilen banatuko dira**



**2.000 alegazio
garraio publikoan aurreikusi
diren murrizketen aurka**



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)


·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

PSU

serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

URTINEA



igandetan irekia!

SANTU GUZTIEN EGUNERAKO AUKERA ZABALAK

San Esteban auzoa, Usurbil 943 36 22 55

Ordutegi gehiago
eskuratu nahi badituzu,
hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar
- * Eroski City * Aginagako
- Arrate taberna * Zubietako
- Alamandegi taberna

Edo deskarga ezazu
www.noaua.eus-etik!

noaua

tren eta autobus

noaua

ordutegia 17/18

Albiste irudituan

1955eko kintoen egun pasa



1955ean jaiotako usurbildarrek Errioxa aldean ospatu dute haien egun handia. Vivancon izan ziren larunbatean. Txangoan ateratako argazkia helarazi dute NOAUAlra.

Laburrean

1967koen bazkaria,
azaroaren 11n

2017an 50 urte betetzen ari diren herritarrentzako gonbita. "Laster elkartu egingo gara oroituz ospatzeko. Azaroaren 11: 1967ko kintoen ospakizuna. Eman izena Kaffan, urriaren 29a baino lehen".

Ostiral honetan
elkarretaratzea

Hilabeteko azken ostirala, euskal presoan eta haien senideen eskubideen alde mobilizatzeko eguna. Elkarretaratzea Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deitu du. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Neguko ordutegira
egokitzeko garaia

Asteburu honetan, larunbatetik igandearako goizaldeko 03:00etan 02:00etara aldatu beharko ditugu erlojuen orratzak, neguko ordutegira egokitzeko. Martxoan amaierara arte iraungo du aldaketak.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatoratzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

ICAN

Arma nuklearrak indargabetezko kanpainak, ICAN ingelesezko sigletan, irabazi du 2017ko Bakearen Nobel Saria. Arma hauen “eragin katastrofiko” azpimarratu dute Bakearen Nobel saria ICAN elkarteari emango diotela jakinarazi dutenean. Horrez gain arma hauek debekatzeko egindako lan bikaina ere eskertu dute. Sari hau Norvegiar ematen da, beste Nobelak aldiz, Suedian. Alfred Nobel berak erabaki zuen Norvegiako Parlamentuko seikote batek izendatuko zuela irabazlea.

ICAN elkarte hau ehun bat naziotan zabaldurik dago eta 468 GKE edo ONGz osaturik dago, eta, besteak beste, arma nuklearrak debekatzeko mundu mailako itunaren bultzatzaileetako bat da. 122 estatuk eman zioten baiezkua hitzarmenari. Hala ere, egun arma nuklearrak dituzten estatuak uko egin zioten sinatzeari.

ICANeko zuzendari den Beatriz Fihnek adierazi du “onartezina” dela oraindik

arma nuklearrak dituzten eta erabiltzearekin mehatxatzen duten estatuak egotea, saria irabazi bezain laster eginiko agerraldian: “arma nuklearrak ez dute segurtasun handiagoa ematen, ez dugu mundu seguruago bat, aurkakoa baizik. Ipar Korearen eta AEBen arteko mehatxuak jarri ditu adibide gisa, eta azaldu du kezkatuta dagoela Kim Jong-un eta Trumpen “moduko pertsona oldarkor batzuek” botoi nuklearra sakatzeko aukera izatearekin, hauen agresibitateak ez baitu neurririk.

Trump eta Kimek gerra nuklearraren atariraino ekarri gaituzte. Ipar Korea bezalako herri txiki batek eta munduko potentzia nagusiaren arteko tirabirak aurtengo udan mundua eraman dute krisi atomiko larri baten ateetaraino. 1962ko Kubako misilen krisian AEBek eta Sobiet Batasunak gerra atomikoa ia piztu zutenetik ez omen da hain egoera arriskutsua bizi izan. Udazkena iristear, ez da ikusten nola baretu Ekialde urruneko sute arriskutsua. Donald Trumpek Hiroshima eta Nagasakiren bonbardaketaren

urteurren eguna hautatu du mehatxatzeko Ipar Korea “sekula ikusi ez den bezalako suz eta haserrez” atakatzearrekin. Hori da hori buru arina, harrokeria eta paranoia!

Arma atomikoak debekatzeko esfortzuak egiten ere ari dira han-hemenka, besteak beste Frantziako ezkerreko eta ekologista artean 101 diputatu eta senatarik arma atomikoak debekatzeko erreferenduma eskatu dute. Sinatu duten aldarriak honela dio: “Gizadiari, gaur bere duintasuna eta izatea bera mehatxaturik dauzkanari, zor zaio oinarrizko eskubidea: bizirauteko eskubidea alegia. Eskubide honek berekin dakar debekatzeko arma nuklearrak, suntsitzea masibozko, masakrezko eta gizadiaren aurkako krimen diren armak debekatzeko”.

Izan ere, Hiroshima eta Nagasakin bota zituzten bi arma atomikoak petardotxo bi besteirik ez ziren izan gaurko arma nuklearrarekin konparatuta. Egungo arma nuklear ahulena haiek baino mila aldiz indartsuagoa da. 15.000 bonba nuklear daude munduan; giza-

dia suntsitu dezakete une batetik bestera. Ze zoramena!

Bakearen Nobel sari batzuk oso kritikatuak izan dira, zenbait kasutan zentzugabeak izan ziren eta, hots, Kisingerri, Obamari, Jimmy Carterri eta beste batzuei emandakoak. Oraingoa aho batez onartua izan da nazioartean. ICANeko idazkari orokor Beatriz Fihnek honako esaldi borobil hau bota zuen duela gutxi: “Zilegi al da ehunka mila hiltzea? Bidezko ez bada, arma nuklear guztiak debekatuta egon behar dute”.

Duela gutxi Frantzisko Aita Santuak honela zioen: “Armarik gabeko mundu baten aldeko apustua egin behar dugu. Planeta hau heriotzak zaurituta dago; nazioen arteko anaitasunak bakarrik salbatuko gaitu”. Duela bi mila urte erromatarrek esaten zuten: “Si vis pacem, para bellum”, hau da: bakea nahi baduk, presta ezak gerra. Baina denok dakigu bake hori kanposantuetakoa dela eta ez zaigu bake klase hori interesatzen.

Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Gripearen aurka txertatzeko deia

Gripearen txertaketa kanpaina abiatu du Osakidetzak, abenduaren 23ra arte luzatuko dena. Txertoa hartzeko aukera izango da osasun zentro guztietan, tartean noski, Usurbilgo anbulatorioan. 400.000 txerto jarri

ditu Eusko Jaurlaritzak herri-tarren esku, 1,2 milioi euro inbertitu dira. Kopuru hori handitu liteke, beharra egongo balitz. Orain artean bezala, deialdia bereziki arrisku taldeei zuzendua dago; hau da, 65 urtetik gorakoei, gaixo-

tasun kronikoak dituztenei, haurdun dauden emakumeei eta osasun arloko langileei.

Estreinakoz ordea, kanpaina euskal gizarte osoari zuzendua egongo da. Modu honetan, gripearri aurre egiteko dugun prebentzio-neurri komunitario

nagusia txertoa dugula gogorazten du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak.

Hitzordua eskatu behar da

Txertoa hartzeko aurrez hitzordua eskatu anbulatorioan edo bertara deituta; 943 36 20 13.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo balliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: azaroak 03. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 30.

LAB: “Kalitatezko garraio zerbitzua emateko, lan baldintzek ere duinak izan behar dute”

LABek elkarretaratzea egin zuen aurreko astean Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa Plazan duen egoitzaren aurrean. Garraio publikoaren antolamenduan aldaketak aurreikusi dira Buruntzaldean eta Tolosaldean eta balizko murrizketen aurrean, LABek zerbitzu duin eta kalitatezko bat aldarrikatzen du.

“Buruntzalderako emakida berriaren aurreproiektua aurkeztu zuen irailaren 8an Foru Aldundiak”, LABek prentsa-ohar bidez jakinarazi duenez. “Gure iritziz onartezinak di-



Aurreko astean, LABeko ordezkariak elkarretaratzea egin zuten Donostiako Gipuzkoa Plazan. Argazkia: LAB.

ren emakidak dira. Murrizketak hainbat zerbitzutan,

ibilbideen denbora edo ratioak errealitatea kontuan har-

tu gabe eginak izatea, hainbat geldialdiren ezabatzea, langileon etorkizuna airean, balizko lanpostuen galera aurreikusten delarik, eta gure eta bidaiarien zerbitzuak eta segurtasuna arriskuan”.

Zerbitzu duina emateko

Idatzi horretan diotenez, “autobus gidariok, egiazki, herritarrei zerbitzu duin eta kalitatezkoa eman nahi diegu, baina hori langileok lan baldintza duinak izatetik igarotzen da. Eta horixe bera aldarrikatzen jarraituko dugu aurrerantzean ere”.

Ika-mika

Autoestimua eta hezkuntza

Norberak bere buruarekiko duen autokontzeptua edo autoestimua pertsonalitatearen eremuko aldagairik garrantzitsuenetako bat dugu, bai alde afektiboan eta baita motibazioarekin lotuta dagoen ikuspuntutik ere. Hainbat ikerketa bat datoz autoestimua berebiziko zereginaz ikasketak eta eskola emaitzak baldintzatzen dituzten estrategia kognitibo eta emozionalak.

Ikerketa gehienek aztertu dute autokontzeptuaren zereginak ikaslearen jokaera akademikoan. Hala izan da, eskolako lorpenaren arduragatik ez ezik, eskolako testuinguruak duen garrantziagatik ere haurren garapenean.

Haurra garatu ahala, berak eraikitako autokontzeptuan

familia eta eskola izango dira gehien eragiten duten testuinguruak. Amek, aitek, irakasleek eta kideek igorritako informazioa eta balorazioa izango dira iturri nagusi autokontzeptua eraikitzerakoan.

Gehienek diotenez, balorazio-poloaren edukiak dira bereziki autoirudiaren edo autokontzeptuaren baloreak modulatzeko dituztenak. Hezkuntza-erakundeetan, pribatu zein publikoetan, aipatutako balorazio-polo hori erakundetuta eta egituratuta dago Eskolako Hezkuntza Proiektuan, dela ikaslearen ebaluazio-estrategian –azterketen bidez eraginkor bihurtzen dena–.

Autokontzeptuari dagokionean, eskolako ikasketetan arazoak dituzten haurrak eta horien zergatiak aztertze-

ko ikerketa gehienek erakusten dutenez, zailtasun akademikoekin batera ikasle horiek autokontzeptu urritasun bat izaten dute orokorrean.

Arestian aipatutakoa aintzat hartuta, eskatzen diegu Udarrigi Ikastolako arduradunei honakoa: 4.DBH burutzen duten ikasleen autoestimua mailaren banan-banako analisia egin dezatela.

Analisi horretaz gain, zera deritzot:

1.- Ikasleen autokontzeptuan edo autoestimuan azterketek duten eraginaren hausnarketa kritikoa egitea beharrezkoa da

2.- Egungo Hezkuntza Proiektuan ebaluatzea, eskolako etapa bakoitzean, adimen emozional bezala ezaguna den

lanketa planifikatu eta egituratuaren gabezia. Alegia, Usurbilgo ikasleek autoezagutza landu dezateneko baldintzak sortu ikastolaren eremuan.

3.- Emakumeen alorrean, “Cuerpo de Mujer. Reconectar con el útero” (Monica Felipe-Larralde, Obstare Editoriala) liburua ezinbesteko tresnatzat deritzot. Tresna hori, bere garaian Euskal Herrian izan genuen araberako gaurko XXI. mendeko eredu kultural berri-egokituak, ate bat izan daiteke egungo eredu kultural patriarkaletik irteteko edo, hobe esanda, ihes egiteko.

Nire ustez, autoestimua eta burujabetza pertsona hitzak erabat lotuta daude.

Erraustegiko lanak gera ditzakete, langileen egoera hobetzen ez bada

Hamar lanordu baino gehiago egunean, soldatak Gipuzkoako Hitzarmenean ezarritakotik %50 beherago, prekaritatea, iruzurra, lan-istripu ugariak, enplegu-suntsipena... “Baina, agian, larriena zera da: herri-erakundeen “asmo txarreko” axolagabekeria, eta patronalen (Adegi eta Asongi) borondaterik eza egoera larri hori iraultzeko”. Hitz hauekin deskribatu du ELA sindikatuak Gipuzkoako eraikuntza sektoreko langileak pairatzen ari direna.

Larritzat jo duten egoera hau Gipuzkoan abian diren bost proiektu nagusietan modu argian islatzen dela diote: Txomin Enea, Deskarga, Anoeta, AHT-ren eta erraustegiko obretan. “Obra bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina alderdi asko berdinak dira. Prekarietatea erabatekoa da. Langileek 5 eta 9 euro bitartean kobratzen dute lanorduko, askotan probintzia-hitzarmenean ezarritakoa baino %50 gutxiago. Lanaldiak gehiegizkoak dira



Txomin Enea, Deskarga, Anoeta, AHT eta erraustegiko obretan ematen den egoera larria dela dio ELAk.

ELA

“Langileek 5 eta 9 euro bitartean kobratzen dute lanorduko, probintzia-hitzarmenean ezarritakoa baino %50 gutxiago”

–10/12 ordu egunean–, eta gehienetan, opor-eskubiderik

gabe, dietarik gabe, ordainsaririk gabe, aldi baterako ezintasunaren baxarrik gabe...”.

Salaketak eta mobilizazioak iragarri dituzte

Administrazioen eginiko obra-lizitazio guztiak langileen esplotazioan oinarritzen direla salatu dute. Egoera honen aurrean, langileon

egoera hobetzeko salaketak eta mobilizazioak ugarituko dituztela iragarri du ELA sindikatuak. Eta egoera ez bada hobetzen, ez dute baztertzen Gipuzkoako aipatu proiektu nagusiotako, tartean erraustegiko obrak geldiaraztea. “Argi dugun gauza bakarra da ez garela geldituko gure helburua lortu arte”.

Urriaren 26an, erraustegiaren aurkako autokarabana

“Erraustegiaren obren berehalako lan uztea eskatzen dugu eta borondate politikoa eskatzen diogu hondakinen gaiari irtenbide merkeago eta justuago bat emateko. Norabide horretan ausardiaz jokatzeko deia luzatzen diegu bultzatzaileei eta interes pribatu eta partikularrak alde batera utzi eta gipuzkoarrontzat komenigarriagoak diren neurriak hartzera gonbidatzen ditugu”, adierazi du

ohar bidez Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

Alternatiba badagoela gogorarazten dute beste behin. “Herri askotan aurrera eramaten ari da eta batzaz beste %70eko gaikako bilketa lortzen da, udalerrri batzuetan %90era ere iritsiz”.

Ausardia eskatzen dute aipatu herri mugimendutik, “eta neurri eraginkor horiek Gipuzkoa osora zabaltzea, batez ere biztanle askoko gune-

tara. Neurri eraginkor horiek probintzia guztian zabaldua erreus tonak asko murriztuko lirake eta erraustegi garesti eta toxikoa ezereztatuko luke, bide merkeago eta osasuntsuagoak ahalbidetuz”.

Autokarabana eskualdetik barrena

Alternatiba badagoelako, “gingarria dela eta gainera merkeagoa eta osasun bermeak errespetatzen dituela”

ozen adierazteko, 2. Baraskilo Operazioa antolatuko du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak urriaren 26rako (osteguna). Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da autokarabana ekimen hau Belartzatik, Decahtloneko errotondatik. Eskualdetik barrena egingo duen biran, Lasarte, Zizurkil, Villabona, Andoain, Urnieta, Hernani, Añorga eta Antiguoa zeharkatuko ditu.

Elkartasuna erraustegia geratu zuten kudeatzaileei

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) asanbladak, EAJ eta PSE-ko ordezkarien aldeko bozkekin, aurreko legegintzaldiko lehendakari Ainhoa Intxaurrendieta eta erakunde bereko Administrazio Kontseiluko kide eta ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkinen aurkako salaketa aurkeztea erabaki du. EHBilduko ordezkariak aurka agertu ziren. Erraustegia geratu izanagatik, enpresa eraikitzaileei emandako kalte ordainen, eta horrek, GHK-ren esanetan eragindako galeren erantzukizuna haien gain hartu eta dirua itzultzea eskatzen diete.

Erraustegiaren Aurkako Mugimendua: "Herritarren hautua bete zenuten"

Auzitara eraman asmo dituzten ordezkari politikoei elkartasuna adierazi die Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. "Lerro hauek baliatu nahi ditugu mugimenduaren babes, maitasuna eta sustengua adierazteko Ainhoa Intxaurrendietari eta Iñaki Errazkini. Herritarren hautua bete zenuten, erabaki zuzena hartu zenuten eta gainera adostutako indemnitazioak ordaindu ziren, legeak eskatzen zuten bezela. Lurraldeari dirutza aurreztu zenioten gairak zuzentzeko zegoen proiektua atzera botatz, osasuna bermatu zenuten, eskerrak ematen dizkizuegu horregatik".

EHBildu: "Kudeaketa zuzena eta gardena egin zuten"

Koalizioaren ustez, GHK-k urriaren 16an hartutako erabakiarekin EAJ eta PSE alderdiek zuzentzen duten foru gobernuak "bide oso larria hartu du, gehiengo demokratikoetan oinarritzen diren erabakiak erres-



2011-15 legegintzaldian, Gipuzkoako Foru Aldundian Diputatuen Kontseilua osatzen zuten kideek babes adierazi diete Intxaurrendieta eta Errazkini. Tartean, kudeatzaile talde hartako Garbiñe Errekondo usurbildarrak.

petatu ez dituelako eta konfrontazioaren bidean sakontzen ari delako".

Horren aurrean, akordioa eta elkarrizketaren alde egitea eskatu du EHBilduk, babes eta elkartasun osoa adieraztearekin batera, aurreko legealdian erraustegia gelditzea erabaki zuten agintariei. Koaliziotik adierazi dutenez, kudeaketa zuzena eta gardena egin zuten, "herri

mandatua betez, gipuzkoarren osasunaren eta interes publikoaren defentsan. Legitimitate demokratiko osoarekin eta legea % 100 betez".

Babesa adierazi diete baita 2011-15 legegintzaldian Gipuzkoako Aldundiko Diputatu Kontseiluko kideek. Intxaurrendieta eta Errazkinen aurka GHK-k abiatzekoak dituen ekimen juridikoak salatu eta

babes osoa adierazi diete bie. Harrotasuna adierazi dute hondakinen kudeaketan egindako lanagatik eta emandako urratsengatik. Azpimarratu dutenez, arau hausterik eta bidegabekeriarik gabe hartu zituzten erabaki guztiak. Ekimen juridikookin EAJ eta PSEk aukera politiko bati bidea ixteko nahia baino ez dutela gaineratu dute.

Erraustegia sare elektrikora lotzeko lizitazioa, martxan

Duela urtebete Lasarte-Oriako Aire Garbia herri plataformak iragarri zuen, goi-tentsioko linea eraiki nahi zuela Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) erraustegia sare elektrikora lotzeko. Urtebete beranduago lizitazioa martxan jarri du GHK-k. Urriaren 20az geroztik, 30 eguneko tartea dute interesdunek, L132 Hernani-Azpeitia 1 eta 2 Lineen Zubietako Azpiestaziora deribazioa egiteko zirkuitu bikoitzeko 132 kv-ko linearen proiektua, ingeniari-tza xehatua, fabrikazioa, muntaia, martxan jarri eta legez-tatze-



Lehiaketa honetarako, 2.150.042,85 euroko aurrekontua (BEZ-a kontuan izan gabe) iragarri du GHK-k.

ko deialdi honetara eskaintzak aurkezteko. Lehiaketa honetarako, 2.150.042,85 euroko aurrekontua (BEZ-a kontuan

izan gabe) iragarri du GHK-k. Informazio gehiago: urriaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Carme Forcadellen eskertza eta laguntza eskaera

Kataluniaren, urriaren 1eko erreferendumaren eta demokraziaren aldeko mozioa onartu zuen gehien-go osoz (EHBildu eta EAJ alde, PSE aurka) Usurbilgo Udaleko udalbatzak joan den irailaren 26an egin zuen osoko bilkuran. Mozio hartan erabakitakoaren berri, besteak beste, Kataluniako Parlament-eko presidentea Carme Forcadelli helaraziko zitzaiola hitz ematen zen. Hala egin zuen Udalak gutun bidez, eta orain, Parlament-eko presidentearen erantzuna bueltan jaso du Udalak. Ezin egokiago idatzia gainera; katalanez eta euskaraz!

Kataluniako Parlamenteko presidentea Carme Forcadell i Lluís ez biziki eskertu dio Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Arregiri zuzenduta idatzitako gutunean, azken osoko bilkuran udalbatzak Kataluniarekin eta demokraziarekin bat egiten zuen mozioa onartu izana. “Benetan eskertu nahi dizuet zuen herriak Katalu-



Irailaren 26ko mozioa Kataluniako Parlament-eko presidentea Carme Forcadelli igorri zitzaion. Aurreko astean, Udalak bere erantzuna jaso zuen bueltan. Forcadellen eskertza-gutuna katalaneraz eta euskaraz dago idatzia.

CARME FORCADELL

“Benetan eskertu nahi dizuet zuen herriak Katalunian gaur egun bizi den egoera politikoaren aurrean erakutsi duen elkartasun eta laguntza keinua”

nian gaur egun bizi den egoera politikoaren aurrean erakutsi

duen, eta urriaren 1eko Erreferendumaren zilegitasunaren alde onetsi duzuen mozioan irudikatu den, elkartasun eta laguntza keinua”, adierazi dio Forcadellek Kataluniako Parlamentaren izenean, Usurbilgo herriari zuzenduta idatzitako gutunean.

Gutun berean gaineratzen duenez, “oso modu berezian baloratzen dugu gure herrialdearen gaur egungo egoerak

eragiten duen arreta, zuek bidali diguzuena bezalako ekimenen bitartez adierazten dena”.

“Zuen laguntza ezinbestekoa da oinarrizko eskubideak bermatzeko”

Eskerrak emateaz gain, laguntza eskatu dio Usurbilgo Udalari, “epe laburrean Katalunian gertatzen diren gertakariak arretaz jarraitzeko eskaria egiten ausartuko naiz. Zuen laguntza ezinbestekoa da bakea, demokrazia, askatasun zibilak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko, ez Katalunian bakarrik, konpartitzen dugun gizarte osoan baizik”.

“Bozkatzea baino ez dugu eskatzen”

Kataluniako herriak, bere etorkizun politikoa erabakitzeko bozkatu baino ez duela eskatzen nabarmentzen du. Aldiz, Espainiako Gobernuak eskari hori ez duela entzun nahi eta errepresio judizialaren bideari ekin diola:

“Zigor kodean delitua ez den arren, delitu bilakatu dute erreferenduma antolatzeraz zuzendutako edozein ekintza”

“Jaun-andre agurgarriak, Benetan eskertu nahi dizuet zuen hiriak Katalunian gaur egun bizi den egoera politikoaren aurrean erakutsi duen, eta urriaren 1eko Erreferendumaren zilegitasunaren alde onetsi duzuen mozioan irudikatu den, elkartasun eta laguntza keinua. Oso modu berezian baloratzen dugu gure herrialdearen gaur egungo egoerak eragiten duen arreta, zuek bidali diguzuena bezalako ekimenen bitartez adierazten dena.

Kataluniako herriak, zilegitasunez eta era baketsuan, modu librean eta demokratikoki bozkatzea baino ez du eskatzen, bere etorkizun politikoa erabakitzeko. Zorritzarrez, Espainiako gobernuak ez du eskari hori entzun nahi, eta Kataluniako erakundeek, zerbitzari publikoek, herritarren eta gizarte zibileko erakundeek kontrako errepresio judizialaren bideari ekin dio. Errepresio horrek ez ditu errespetatzen Espainiak, teoriarik, aitortzen

dituen berme demokratikoak.

Espainiako zigor kodean erreferenduma delitua ez den arren, delitu bilakatu dute erreferenduma antolatzeraz zuzendutako edozein ekintza. Kataluniako gobernuaren finantzak beraien kontrolpean hartu dituzte. Indar polizialak bidali dituzte Kataluniako gobernuaren egoitzetan sartzeko, eta zerbitzari publikoak atxilotu dituzte. Eta herritarrak, eraso horien kontra protesta egiteko era baketsuan kalera irten dire-

nean, Espainiako gobernuak erantzun judiziala eman du, “sedizioa” egotzita.

Jarduketa horiek ikusita, epe laburrean Katalunian gertatzen diren gertakariak arretaz jarraitzeko eskaria egiten ausartuko naiz. Zuen laguntza ezinbestekoa da bakea, demokrazia, askatasun zibilak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko, ez Katalunian bakarrik, konpartitzen dugun gizarte osoan baizik”.

Carme Forcadellen erantzuna

“Jordi eta Jordi. Behin ere ez zaizue gure babesas faltako”

Jordi eta Jordi. Behin ere ez zaizue gure babesas faltako. Ez gara nekatuko esateaz zuekin gaudela. Estem amb vosaltres. Jaso ezazue besarkada bero bat. Força y coratge! Laster arte!. Elkartasun besarkada handia helarazi zioten usurbildarrek Jordi Cuixart Omnium Culturaleko presidenteari eta Jordi Sanchez ANC Biltzar Nazionalen Katalaneko presidenteari, urriaren 17an Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratzean.



Gure Esku Dago Usurbilek deituta, Jordi Cuixart Omnium Culturaleko presidenteari eta Jordi Sanchez ANC Biltzar Nazionalen Katalaneko presidenteari aldeko elkarretaratzea egin zuten urriaren 17an Mikel Laboa plazan.

Elkarretaratze jendetsua

Mikel Laboa plazan

Bezperan, Espainiako Auzitegi Nazionalen Carmen Lamela epaileak deklarazioa hartu ostean Madrilgo Soto del Realen espetxeratzeko agindua eman zuen bi lagunontzat.

Irailaren 20an, Guardia Zibilak urriaren 1eko erreferendumari begira eginiko polizia operazioan atxilotutako 14 lagunengatik eta eginiko

AKUSAZIOA

Ekonomia Kontseilaritzaren aurrean eginiko protestan, Guardia Zibilaren kontrako “setioa” sustatzea egozten zaie bi Jordiei

miaketengatik protestatzera irten ziren milaka herritar. Kataluniako Ekonomia Kontseilaritzaren aurrean eginiko

protestan, Guardia Zibilaren kontrako “setioa” sustatzea egozten zaie espetxeratu dituzten bi Jordiei.

Atxiloketok salatzeke, Gure Esku Dagok elkarretaratzeak deitu zituen “Junts” aldarripean. Ondoko irudian duzue Usurbilen egin zutena.

Ministro Kontseiluen neurriak, “arbuigarriak”

Gure Esku Dagok totalitario, arbuigarri eta antidemokrati-

kotzat jo dituzten joan den larunbatean Espainiako Gobernaren Ministroen Kontseiluak hartutako neurriak. Neurrioren adierazpena Kataluniako herri eta erakundeei. “Halaber, deitu nahi dituzte euskal herritarrek elkartasun adierazpenak areagotzera eta erabakitzeke eskubidearen aldeko ekimenetan parte hartzera. Etorbizuna gure esku dago. Elkarrekin lortuko dugu”.

“Ideia politikoen eta adierazpen askatasunaren aurka egiten ari da Espainiako Estatuak”

Urriaren 17an, Mikel Laboa plazan eta “Junts” aldarripean, herritar ugari mobilizatu ziren. Gure Esku Dagok deituta, Katalunian izan diren azken atxiloketak salatu zituzten. Atxilotuak aske uztea eskatu eta elkartasuna adierazi zieten, estelada artean. Hauxe da irakurri zen adierazpena: “Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart ANC eta Omniumeko presidenteari espetxeratu egin zituzten atzo, Carmen Lamela epailearen aginduz. Herritarren

borondateari era baketsu eta demokratikoan bide emateko lan egiteagatik kartzelara eramane dituzte, baldintzarik gabe.

Idea politikoen eta adierazpen askatasunaren aurka egiten ari da zuzenean Espainiako Estatuak, botere judicialaren bidez eta etengabeko beldurraren kanpaina eginez. Urrutiei iritsi da. Herritarren oinarriko eskubideei bizkarra eman eta gizatasunaren muga gainditzeraino. Eta orain Kataluniako inde-

pendentziaren aldeko mobilizazioak eta adierazpideak delitu bilakatu nahian dabil. Oso larria da hori. Demokrazia batean aukera guztiak beren tokia izan behar dute eta proiektu politiko guztiak modu baketsuan eta demokratikoan defendatu eta gauzatzeko modua izan behar dute, salbuespenik gabe.

XXI. mendeko kultura politikoko berriari atea zabaltzeko diote katalanek eta erakutsi dute herritarren gehiengoaren borondatea beste mugarik

ez duela etorkizun justuago batek. Era baketsu eta zibikoan egin dute, irribarre batekin ahoan. Bi Jordiek lan infinitua aitortzeko, babesas emateko, eta bidegabekeria salatzeke, kalera aterako gara gaur. Ezin gara albora begira geratu.

Jordi eta Jordi. Behin ere ez zaizue gure babesas faltako. Ez gara nekatuko esateaz zuekin gaudela. Estem amb vosaltres. Jaso ezazue besarkada bero bat. Força y coratge! Laster arte!.”

Anna Ferrandiz Rabat: “Artisau bezala aitortua sentitzea oso pozgarria da”

Aitzaga Elkarteak azaroaren 1erako (11:00etan hasita frontoian) antolatu duen 22. Artisautza Azokak 30 bat postu bilduko ditu. 30 artisau. Anna Ferrandiz Rabat katalanarena esaterako. Usurbilen bizi da duela bi urtetik. “Koalita polita” (koalitapolita.com) marka sortu du, eskuz sortzen dituen jantziak ezagutzera emateko. Lerrootan elkarrizketatu dugu. Ezin genion eutsi eta Kataluniaz ere galdetu diogu noski.

NOAUA! Koalita Polita marka nondik dator?

Anna Ferrandiz Rabat: Koa-la nire izateko moduagatik, eta polita, orain bizi naizen lekuagatik. Etxean koala deitzen naute loti samarra eta oso maitekorra naizelako. Polita, marka hemen sortu nuelako. Bizi nintzen lekuko hizkuntzako hitz bat eman nahi nion markari.

Non abiatzen da abentura?

Etxean, amonak jostunak nituen. Haietako bat, goi-mailako jostuntzan aritzen zen. Denborarekin ikastaro batzuk egiten hasi nintzen Bartzelonan. Jendea bere neurrirako arropa egitea eskatzen hasi zitzaidan eta horretan hasi nintzen. Hona etorri eta marka sortu nuen. Hemengo lagunak lagundu zidaten logoa sortzen, Zarauzko Jostederren hasi nintzen. Aurten hasi naiz artisau bezala, azoka ezberdinetan parte hartzen. 2018ko udako bilduma lantzen nabil orain. Arropa diseinatu artean, azoketan, sortzen ditudan moda osagarriak erakusten ditut.

Lehen urtea zaila izaten omen da sarritan. Zurea nolako izaten ari da?

Ni oso pozik nago. Udako lau



“Udako lau hilabeteotan, hilero azoka batean edo bitan izan naiz”. Azaroaren 1eko azokan ere hartuko du parte Anna Ferrandiz Rabatek.

ANNA FERRANDIZ RABAT

“Taz ogia erostera irten nintzen kalera azaroaren 1ean eta azoka ikusi nuen”, adierazi digunez. Aurten, bere artisau lanekin postu bat ipiniko du

hilabeteotan, hilero azoka bat edo bitan izan naiz. Artisau bezala aitortua sentitzea oso pozgarria da.

Nolakoa da besteontzat ezezaguna den sortze prozesua?

Lana oso ederra da, sormenaren ikuspuntutik itzela, ordaindu ezin dena; pentsatu, diseinatu, planoetan islatu, gero landu, zure burua ezagutzera eman, saldu. Prozesua nahiko

luzea da, denbora asko inbertitzea eskatzen du.

Alde ezkutu hau ezagutuko bagenu, artisaua askoz hobeto ulertuko genuke?

Askoz ekonomikoagoa dela pentsatzen dute askok. Egungo gizartean dena surrealista da. Oso azkar josten da, koste oso baxuan, herrialde guztiz esplotatuetan. Munduak errealitate honi buelta eman behar dio beste antolaketa eredu baterantz, denek aukera berdinak izan ditzaten. Benetan jantzi bat ondo egin nahi baduzu, nortasunarekin, denbora eta prezioa behar da. Zuk egiten duzu dena.

Artisauak errealitate larri horri alternatiba erreal bat eskaintzen diozue?

Oihal bat aurkitzerakoan ahalik eta produktu onena

izaten ahalegintzen zara, zentuzko prezio batekin. Artisau produktuak jasangarriak dira, material jasangarriaz eginak izan edo zure eskuekin sortuak direlako. Gainera argi dakizu, zeinek, nola eta zer maitasunez egin diren. Errepikaezinak dira. Eta horregatik bakarrik du duen prezioa.

Online denda duzu. Artisauentzat saltzeko bide errazagoa?

Artisauak edo egungo diseinatzaileek zaila dute, espazio fisiko bat izatea. Duenak egiten duzuna modu erraz eta ekonomikoena ezagutzera emateko modua online edo azokak dira. Betidanik oso lagunkoia izan naiz. Azoketara joatea gustuko dut, eguna igaro, jendez inguratu, bezeroekin hitz egin...

Halako abentura bat abiatzerakoan, gomendagarria izango da inguruan orientatuko zaituen jendea izatea.

Nire kasuan, josteko jakinduria irakatsi didana, laguntza, Zarauzko Jostederreko irakaslea izan da. Baita klase kideak. Eta egun, diseinu irakaslea. Ez nuen marrazteko ideiarik baina denek esaten didate, barruan neramala. 30 urte pasatxora arte ez dut garatu ordea. Gero bikote lagun eta lagun on askoak ditut, beti babesten eta aurrera segitzeko animatzen aritzen zaizkit.

Moda osagarriekin egiten du lan

NOAUA! Zer erakutsiko diguzu azaroaren 1ean?

Anna Ferrandiz Rabat: Batez ere moda osagarriak; motxilak, bandolerak, ileko zintak, negurako buffak, lehen bildu-

mako pare bat gona... Erakusketak modukoia izango da. Gipuzkoa aldean nabilenean, nirekin azoketara joan ohi den lagun baten alaba gaztetxoa izango dut laguntzen.

Azoketan ikusi edo erosi, zer egiten dugu gehiago?

Denetarik dago, baina benetan azoka mundua gustuko baduzu, beti zerbait erosten amaitzen duzu.

“Kataluniakoa ez da bide erraza izango, baina prozesuak aurrera jarraituko du”

NOAUA! Urriaren 1eko erreferendum eguna nola bizi izan zenuen?

Anna Ferrandiz Rabat: Opor egunak nituen, eta han izan nintzen. Esplugas de Llobregateko hautesleku batean arazorik gabe bozkatu nuen. Oso hunkigarria izan zen, jende ilara luzea hauteslekuetan... Lagun asko eta aita ere, hauteslekuetan sostengu lana egiten aritu ziren. Haiei esker posible izan zen, herriak eskatzen zue-na egitea. Argi dago zer eskatzen dugun; guk geure dirua, kultura, hizkuntza eta lurraldea kudeatu ahal izatea. Guk geure burua gobernatu ahal izatea. Ez dago Espainiarekiko gorrotorik. Nahiago nuke, zuek, Galizak, Extremadurak... ere gauza bera egin ahal izatea. Ez da oso konplexua, aldatu nahi izateko borondatean dago gakoa. Baina Franco ez da hil. Dena ondo asko lotua utzi zuen.

Estatu independente baten aldeko eskaera argia dago Katalunian. Baina bistan denez asko independizatu zarete jada.

Kataluniako gehiengoarentzat independentzia egina dago.



Anna Ferrandiz Rabat artisaua katalana da baina Usurbilen bizi da orain.

ANNA FERNANDEZ RABAT

“Esplugas de Llobregateko hautesleku batean arazorik gabe bozkatu nuen. Oso hunkigarria izan zen, jende ilara luzeak hauteslekuetan...”

Governeko presidenteak independentzia aldeakartasunez aldarrikatzeko asmoa bat batean geratzea ez dut askorik ulertzen. Agian askoz okerrago izango zelako egingo zuen. Baina egin beharra zegoela uste dut, eta hala egin beharko

duela, pentsatu gabe. Besteak ez direlako hitz egitera eseriko. Ia gero zer gertatzen den.

Kataluniak ze bide jorra dezake epe motzean?

Kataluniako herriak orain arteko izateko eta jokatzeko modu bera izango duela uste dut.

Zuen artean izan ditzakezuen desadostasunen gainera argi duzue bidea?

Hori hala da, oso argi dago hori, baita nola egin behar dugun eta prozesuak ez duela atzera bueltarik. Baina errepresioa oso gogorra izango da. Ez

duela pentsatu nahi Kataluniako kultura, hizkuntza galdu dezakegunik, ezta ekonomikoki, edo lurraldetasuna bera ere. Oso zaila ikusten dut, ez naiz baikorra, Franco ez baita hil.

Ezinezkoa ezta?

Ezinezkoa ezta. Pausoka eta gauzak egiten ari garen moduan, gauza asko lor ditzakegu. Eta hori erreala da. Pixkanaka egiten segiko dugu, baina makilkada asko jaso beharko ditugu. Ez da bide erraza izango. Baina prozesuak aurrera jarraituko du. Epe motzean edo bestela urte batzuen buruan, egun haurrak direnak Katalunia herri independente gisa ikustea espero dut.

Usurbildik nola bizi duzu ehunka kilometrotara gertatzen ari dena?

Inpotentzia eta amorru handiz. Han egotea gustatuko litzaidake babesa ematen eta laguntzen. Ez da herri katalana soilik, munduan egoera berean herri asko dago. Ez zaie entzuten, gu baino askoz okerrago bizitzen ari direnak ere badira. Jendartearen pentsamoldeak buelta bat eman behar du.

“Bat egin behar dugu modu baketsu eta alaian”

NOAUA! Nola ikusten ari zara Euskal Herria Kataluniako prozesuaren aurrean?

Anna Ferrandiz Rabat: Elkartasuna heltzen ari da. Usurbilen bizitzea ederra da. Etxera heldu eta kazerolada entzutea, edo erosketak egitera irten, herria esteladaz betea ikusi eta hemengo jendeak babesten gaituela sentitzea oso asegarria eta hunkigarria da. Antzeko bi herri gara. Nire gura-

soen kasua ordea bitxia da. Ni hemen bizitzen egonda, haiek uste dute Euskal Herria ez dagoela guztiz posizionatua eta haiek Euskal Herriaz gehiago espero zuten. Niri ordea ez zait gutxi iruditzen bizi izan duzuen guztiagatik hemen egiten ari zaretena. Atentzioa ematen dit neure gurasoek hori esatea, ez baitut uste Kataluniak bere garaian Euskal Herria, orain Euskal Herriak

Katalunia egiten ari den neurri berean babesten zuenik. Beti eman dit atentzioa Euskal Herriak. Oso herri antolatua zarete.

Katalunia babesten segitzea beharrezkoa izango da ezta?

Batez ere Euskal Herrian, edota Madrilen ere esaterako egiten ari diren moduan. Inon ez dadila errepresiorik izan saiatu behar dugu. De-

nok bat egin behar dugu modu baketsu eta alaian, beldurrik gabe. Hori beharrezkoa litzateke, erregimena eraisteko.

Guk zer ikasi dezakegu zuen prozesuaz?

Beharrezkoa da hitz egitea, jendea interesatzea eta jendeak elkar laguntzea. Elkarrengandik ikasi beharko genuke. Zuek ere egin dezakezue.

Merezitako omenaldia Alejandro Tapiari

Merezi bezala agurtu eta omenduko dugu Aiazko abendu amaieran zendu zen Alejandro Tapia margolari aginagarra; ate joka dugun NOAA!ren Kulturaldiaren baitan, Tapiaren familiak eta ingurua, Usurbilgo Udala eta kultur elkarte hau prestatzen ari diren erakusketaren bidez.

Ondoko irudian dituzue erakusketaren antolatzaileak. Alejandroren heriotza isil samarrean igaro zela eta zerbait egiteko gogoak batu ditu. “Zerbait egin behar genuela esaten genuen, bere inguruan bildu eta despedida hori behar den bezala egiteko”, azaldu dio NOAA!ri Alaitz Aizpurua udal zinegotziak.

Egunotan, Tapiaren Aginagako estudioan aritu dira, azaroaren 3tik 12ra Sutegin ikusgai izango ditugun sortze lanak aukeratzeko. “Estudioan zituenak bere gustukoak ziren. Hemen ikusten dena saiatu gara mantentzen muntaiari”, adierazi digu Usoa Zumetak. Harribitxi asko dago tartean. “Pieza txikiak dira gehienak baina urrutitik begiratzea eskatzen dute, sakontasun handia baitute. Sorpresa handia hartu dut askorekin”, gaineratu du Zumetak.



Egunotan, Tapiaren Aginagako estudioan aritu dira, azaroaren 3tik 12ra Sutegin ipiniko den erakusketa prestatzen.

USOA ZUMETA

“Pieza txikiak dira gehienak baina urrutitik begiratzea eskatzen dute, sakontasun handia baitute. Sorpresa handia hartu dut margo askorekin”

Bere ibilbidearen erakusgarri
1951-2014 urte arteko hainbat sortze lan hautatu dituzte Sutegirako. “Bere bizitza osoko aukeraketa bat dago. Ikusiko da baita ere, ze aldaketa edo ibilbide egin duen bere ma-

razkietan, nabarmena baita”, iragarri digu udal zinegotziak.

Natura nagusiki

Tarteka arkitektura ikusiko dugun arren, argi diote, bera naturazalea izaki, natura nagusituko da erakusketan ikusgai izango diren aginagarraren lanetan. Aipatu moduan, irudian duzuen estudiotik ateratakoak dira Tapiaren lan kuttunenak. Naturari begira dago Aginaga goialdean dagoen gunea. Leiho zabal batekin, inguru berdeari begira. “Azpimarragarria da hona sartu eta kanpotik ez dirudien arren, ze argitasun dagoen barruan. Horrek asko

esan nahi du margotzen ari den batentzat”, nabarmendu digu Aizpurua.

Aginagari lotuta bizi zen

Kokapena dudarik gabe garrantzitsua da sortzaile batentzat, baita Alejandrorentzat ere. Apropos aukeratu zuen. “Baserrian bizi ginen denok. Koadro piloa zuen. Baserria koadroz betetzen ari zitaion, eta orduan, lur sail hau erosi eta hemen estudio bat kokatzea erabaki zuen. Berak aukeratu zuen eremua eta dena, nik uste paisaia horientatik”, oroitzen du Alejandroren senide Josune Agirre Tapiak.

“Margotzeko grina barruan zeraman”

Garai hartan dena utzi eta bere bizimodua sormenera bideratzera erabaki zuen Tapiak. Apustu ausarta egin zuen dudarik gabe. “Bere burua autodidakta gisa aurkezten zuen. Elkarrizketa batzuetan aipatzen du, 13 urterekin lana utzi zuela. Berak margotzeko grina barruan zeramala zioen. Garai hartan zaila izango zuen familian pinturara dedikatu nahi zuela

esatea, baina hori adierazi eta hortik bizitzea ausarta behar izan zuen”, dio Alaitzek.

Errestaurazio lanetan hasi zen. Sari batzuk ere irabazten hasi izanak, “lagundu zion aurrera joaten. Bere sortze lanak orduan hasi zela saltzen zioen”.

Erriberaren margolaria

Eta bidaiatzeari ere ekin zion. Kanpoan bizi eta ika-

sitakoa bere sortze lanetara garraiatzen zuen gero. Baina gertukoa, etxekoa ere maitatu zuen. Bereziki Aginagako erribera. Aginaga eta Usurbil-ekin lotura estua izan zuen Alejandrok eta hori ere islatu nahi da erakusketa honen bidez. “Oso artista herrikoia zen. Aginagan ere jai egitarauak berak lantzen zituen. Usurbilen ere hor dago bere murala. Aginagan eta Usur-

bilen ere erakusketa bat baino gehiago egin izan ditu”, oroitzen du Aizpurua.

Katalogo bat

Katalogo bat ere lantzen ari da antolakuntza taldea, Tapiaren sortze lanen irudien bildumarekin. Erakusketan kontsultatu ahalko duzue. Irekiera ekitaldia, azaroaren 3an (ostirala) 19:00etan Sutegin.

Kulturaldiko lehen hitzorduak

Azaroak 3, ostirala

**19:00 Alejandro Tapiaren ome-
nezko ekitaldia Sutegiko audi-
torioan.** Ondoren, erakusketa-
ren irekiera.

Antolatzaileak: Udala, Alejan-
dro Tapiaren familia eta ing-
urua eta Noaua! Kultur Elkar-
tea.

Azaroak 3-12

**Alejandro Tapiaren lanen
erakusketa Sutegiko erakus-
taretan.** "Alejandro Tapiaren
lanak ikusi ahal izango ditugu.
Berak bereziki maite zituen lan-
ak eta inoiz erakutsi gabeko
lanak izango ditugu erakus-
gai".

Noiz:

■ Azaroaren 3an: 18:00-20:00.

■ Azaroaren 4, 5, 11, eta 12an:
12:00-14:00 / 18:00-20:00.

■ Azaroaren 8, 9 eta 10ean:
18:00-20:00.

■ Antolatzaileak: Udala, Ale-
jandro Tapiaren familia eta ing-
urua eta Noaua! Kultur Elkar-
tea.

Azaroak 4, larunbata

**11:00 "Landareak lantzen" li-
buru berriaren aurkezpena.**
Jakoba Errekondo eta Antton



Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga Potxoenean izango dira azaroaren 4an. Landareak lantzen (Argia) liburua aurkeztuko dute bertan.

Olariaga, Potxoeneko goiko
gelan.

■ Sarrera: doan.

■ Antolatzaileak: Noaua! Kultur
Elkartea, Alkartasuna Kooperati-
bata eta Usurbilgo Udala.

Azaroak 5, igandea

12:00 Kantu-Bertso-jira Mikel
Laboa plazatik, Jon Maia
eta Alaia Martin bertsolarie-

kin.

Bertsolari Txapelketa Nagu-
si betean gauden honetan,
lehiatik haratago, lagun ar-
teko bertso giro goxoaz go-
zatzeko aukera izango dugu
azaroaren 5ean, Jon Maia eta
Alaia Martinen eskutik.

■ Antolatzaileak: Kantu
Taldea, Bota Punttuba eta
Noaua! Kultur Elkartea.

**19:00 "Handia" pelikula Sutegi-
ko auditorioan.**

■ Sarrera: 6 euro (Aldez au-
rretik Bordatxon, Artzabalen,
Lizardin eta Noaua!ko egoit-
ztan). Noaua!ko bazkideek 4
eurotan erosi ahal izango dute
Noaua!ko egoitzan aldez au-
rretik.

■ Antolatzailea: Noaua! Kul-
tur Elkartea.

"Handia", Sutegin ikusgai



Azaroaren 5ean igandea, 19:30etik aurrera Sutegin.

Urriaren 20an estreinatu
zuten Euskal Herriko zine-
metan Altzoko "Handia"ri
buruzko filma. Azaroaren
5ean 19:30ean izango dugu

ikusgai. Donostiako 65. Zine-
maldian Epaimahaiaren Sari
Berezia jaso zuen "Handia"
filmak. Informazio gehiago:
handiafilm.com

Kantu-jira, bertsoz girotua



Alaia Martin.



Jon Maia.

Kantu zaleentzako hitzordu
bikoitza asteotan. Lehenengo
saioa, ohikoa, hilero azken
larunbatetan deitu ohi du-
tena. Urriaren 28 honetan
19:00etan Mikel Laboa pla-
zatik abiatuko dute kalejira.
Bigarren hitzordua astebete
barru helduko da. Azaroaren

5ean eta NOAUA!ren Kultu-
raldian. Kantu saio berezia
eguerdiko 12:00etan Mikel
Laboa plazatik, Jon Maia eta
Alaia Martin bertsolariekin.
Bota Punttuba, Kantu Taldea
eta NOAUA! K.E.-k elkarla-
nean antolaturiko hitzordua
izango da.

Mundu bat ibili zen Mundualdian



Mauritania, Italia, Ghana, Nigeria, Euskal Herria, Sahara, Honduras, Nicaragua, Pakistan, Kuba... Sorterri ezberdinetako herritarrek prestatutako jakiak dastatzeko aukera egon zen igandeko Mundualdia jaialdian. Argazki gehiago topatuko dituzue noaia.eus web orriko Argazkitegian.

Tokikom Sariak Sutegin banatuko dira ostiral honetan

Euskarazko 60 toki komunikabideek (tartean NOAUA!k) osatzen dute TOKIKOM. Iaz, toki komunikabideek ekoiztutako edukia gizarteratu eta goraiatzeko xedez, Tokikom Sarien lehen edizioa ospatu zen Arrasaten. Bigarren edizioa ostiral honetan egingo da Usurbilen. Goizez, 09:00-13:00 artean, Sutegin.

Portadarik, edukirik eta ikus-entzunezkorik onena eta euskarazko publiztaterik onena nabarmenduko dira ekitaldian zehar. Baina gehiagorako ere emango du hitzorduak. "Aukera aprobetxatuko dugu euskarazko tokiko komunikazioaren etorkizunaz eztabaidatu eta hausnarketa egiteko. Horretarako puntako gonbidatuen ekarpenak izango ditugu", iragarri dute Tokikometik. Publizitatearen inguruko mahai ingurua egingo da eta Flandriako hedabide baten esperientzia gertutik ezagutzeko aukera izango da.

NOAUA!, iazko sarituetako bat Dagoeneko 2. Tokikom Sarietarako hautatuak nortzuk izango diren erabakitze lan betean da epaimahaia. Tokikomek irailaren 22ra arte finkatu zuen epearen baitan aurkezturiko eduki onenak sarituko dituzte. Gogoan izan, iaz ospatu zen lehen edizioan, sarituetako bat NOAUA! izan zela. Eduki



Iaz NOAUA! aldizkariak jaso zuen Eduki Onenaren Tokikom Saria, "Udarregiren omenez" izeneko gehigarri bereziarengatik. Arrasaten egin zen sari banaketa. Aurten, Usurbilen egingo da ekitaldia eta, lehen aldiz, publizitate lanak ere sarituko dira.

TOKIKOM

"Aukera aprobetxatuko dugu euskarazko tokiko komunikazioaren etorkizunaz eztabaidatu eta hausnarketa egiteko"

onenaren saria jaso zuen hedabide honek, 2016ko maiatzeko Sagardo Egunaren bueltan, Udarregi bertsolariaren omenez frontoi atzean dagoen eskulturaren 50. urtemugaren harira argitaraturiko gehigarri bereziarengatik.

II. Tokikom Sarien epaimahaia

Sarituak hautatuko dituen epaimahaia:

lea, ikus-entzunezkoetan aditua).

Kazetaritza sariak

Portadarik, edukirik eta ikus-entzunezkorik onena

■ Edorta Arana (EHUko irakaslea, ikus-entzunezkoetan aditua).

■ Maria González Gorosarri (EHUko irakaslea, kalitatezko kazetaritzan aditua).

■ Amaia Pavón (Mondragon Unibertsitateko irakas-

Publizitate saria

Euskarazko publiztaterik onena

■ Kike Amonarriz (Soziolin-guista eta komunikatzailea).

■ Estitxu Garai (EHUko irakaslea, publizitatean aditua).

■ Zuriñe Elordi (Emakundeko Idazkari Nagusia, Begira Batzordearen Presidentea).



2.000 usurbildarrek garraio zerbitzu publikoak ez murriztea eskatu diote Foru Aldundiari

Gipuzkoako Foru Aldundiak garraio zerbitzu publiko hainbatetan murrizketak aplikatzeko landua duen aurreproiektuaren aurka argi asko agertu dira usurbildarrak. Guztira 2.000 alegazio inguru bildu ditu Usurbilgo Udalak. 2.000 herritarrek eskatu diote Aldundiari ez ditzala aplikatu aurrekusiak dituen murrizketak. Besteak beste, gogoan izan, ospitalera doan zerbitzua kendu asmo dute eta Hernanira doan zerbitzuak egiten duen ibilbidetik kanpo geratuko dira Santuenea eta Zubietako geltokiak.

Gazte askok erabiltzen dute bus linea hau, Lasarte-Oriako Institutura joateko. “Hemenetik aurrera Usurbilgo herrigunera hurbildu edo Lasartera beraien kabuz joan beharko dira, halabeharrez. Murrizketa hauek adinekoen eta gazteen artean izango dute eraginik handiena, hau da, babes gutxien daukaten gizarte sektoreen artean”, udal ordezkariaren esanetan.



Ospitalera doan zerbitzua kendu asmo dute eta Hernanira doan zerbitzuak egiten duen ibilbidetik kanpo geratuko dira Santuenea eta Zubietako geltokiak.

UDALA

“Murrizketa hauek adinekoen eta gazteen artean izango dute eraginik handiena, hau da, babes gutxien daukaten gizarte sektoreen artean”

Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Arregik ere gipuzkoarren eta usurbildarren garraio zerbitzu publikoa errespetatu dezala eskatua dio egunotan Foru Al-

dundiko ordezkariarekin, Marisol Garmendia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatuarekin eta Iñaki Prego zuzendariarekin izandako bileran.

Ikuspegi ekonomizistaren albo-kalteak

Murrizketak aplikatu asmo dituzten zerbitzuok erabiltzaile gutxi dituztela dio Aldundiak. Zerbitzu publikoak defendatzea eskatu die aldiz, Usurbilgo alkateak. Udal ordezkariak Aldundiari esana diote, garraio zerbitzu publikoak ezin direla

“erabiltzaile kopuruaren araberako eta ikuspegi ekonomizista hutsetik jarri edo kendu, irizpide horrek zokoratu egiten baititu komunitate txikiak. Gogorarazi zitzaizkien aurreko legealdian lanketa handia egin zela, herritarrei parte hartzeko aukera handia eman zitzaizkela, eta ezin dela orain bat-batean egingandakoa deuseztatu”.

Mozioa, datorren osoko bilkuran

Gaur arte jasotako alegazioak Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko dizkio Usurbilgo Udalak. Bada ordea, Udalak iragarri duen beste ekimen bat. Hilaren 31n egingo den urriko osoko ohiko bilkuran, gai honen inguruko mozioa aurkeztuko du EHBilduk, udalbatzak bozkatu eta onartu dezala. “Bertan, besteak beste, herritarrekin, udalekin eta gizarte eragileekin prozesu ireki bat martxan jar dezala eta Usurbilen dauden bus-zerbitzu eta linea guztiak mantendu ditzala eskatuko diote Aldundiari”, iragarri du Udalak.

ERAKIDE, elkarlanaren aldeko proiektua

ERAKIDE proiektuak Gipuzkoako enpresetan erantzunkidetasun sozialaren kontzeptua zabaldu eta praktikan jartzeko xedea du. “Erakundearen zein jendartearen erdigunean, pertsona dagoela azpimarratuz. Horrez gain, enpresek zein beste motatako erakundeek, inguruarekiko duten erantzunkidetasuna azaleratu nahi du”, Foru Aldunditik adizteraz eman dutenez.

Farapi Kooperatibaren dinamizazioari esker, erakundearen

elkar-erantzunkidetasun soziala modu praktikoan landuko da. Horretarako propio sortu den tresna informatiko baten bidez.

Proiektuaren helburuak:

1. Erantzunkidetasun soziala zabaldu eta indartu, kontzeptua gizarteratuz.
2. Enpresa proiektu irekiak eta parte hartzaileak sustatu, lurraldearekiko loturak sortuz eta garatuz.
3. Guztion artean Gipuzkoa justu, berdinzale eta partehar-tzaileagoa eraiki.



Proiektua Urola Garaia eta Beterri-Buruntza eskualdeetan jarri da martxan, Foru Aldundiarekin batera.

4. Entitateen eta Garapen Agentzien arteko harreman sare indartu.
5. Erakunde publikoetatik erantzunkidetasun sozialaren ikuspegitik jardutea.

Gurasoentzako euskara klaseak

Iaz bezala, Etumeta AEK euskaltegiak Usurbilgo Udalaren laguntzaz gurasoei zuzenduriko euskara ikastaroa antolatuko du. Klaseak Udarregi Ikastolan eskainiko dituzte AEK-ko irakasleek astero bi eguneko eta bi orduko, 14:30-16:30 artean, azaroaren 6tik maiatzera. 2-12 urte arteko haurren gurasoek izango dute lehentasuna, taldekatzeko orduan.

Izen emateko, urriaren 27ra arteko epea dago: 607 609 379
usurbil@ae.eus

Udarregi Ikastolaren eskertza Erronkako partaideei

Udarregi Ikastolako DBH3-ko ondoko irudiko taldeak, pasa den Oñatiko Kilometroak jaialdiko Erronkan parte hartu izanagatik zoriondu eta eskertu du. “Azken 4 urtetan Kilometroak-en inguruan antolatzen den Erronka ekimenean, aurren ere gure ikasleek parte hartu dute gogoz eta jarrera bikaina erakutsiz”, azpimarratu dute ikastolatik.

“Kiroltasuna erakutsiz, ederki aritu ziren lanean. Garaile izan ez baziren ere, bikain aritu zirela adierazi nahi diegu eta datorren urteko txanda laster ate joka izango dugula. Aupa zuek!”, nabarmendu dute Udarregitik.

Txapeldunak izatetik oso gertu ibili ziren. Podiumean, hirugarren postuan amaitu zuen Udarregi Ikastolak 40 punturekin, irabazle amaitu zuen Orioko Herri Ikastolaren-gandik oso gertu, oriotarrek 43 puntu eskuratu baitzituzten. Gipuzkoako 21 ikastolek parte hartu zuten Erronkan.



Udarregi Ikastolaren esanetan, “kiroltasuna erakutsiz, ederki aritu ziren lanean”.

Udarregi Ikastolako taldea

Parte hartzaileak:

Maidier Perez Arruti, Leire Iturbe Da Silva, Nerea Portularume Borda, Amaia Bengoetxea Azurmendi, Amaia Sasiain Garcia, Janire Zuriarrain Jorge, Maddi Altuna Aizpurua, Maren Lasa Etxeberria, Amaia Labaien Rodriguez, Itsaso Salsamendi Romero, Maddi Lorenzo Olasagasti, Aitana Davila Zal-

dua, Onditz Pagola Zuriarrain, Maddi Olaetxea Usabiaga, Iraixe Etxebarria Camino, Ainhoa Bailo Etxeberria.

Ordezkoak:

Malen Perez Jimenez, Izaro Telleria Aperribai.

Ikastolako kapitaina:

Unai Lataillade.

Informazio gehiago eta irudia:

<https://www.erronka.eus>

Hezkuntza emozionalari buruzko saioa

Hitz Aho guraso elkarteak hezkuntza emozionalaren inguruko tailerra antolatu du. Urriaren 25ean hasi eta martxoaren 21ean amaituko da. DBHko eraikinean eskainiko dute tailerra, arratsaldeko 17:00etik 19:00era. Plazak mugatuak dira eta izena emateko azken eguna urriaren 24a zen. Dena den, informazio gehiago jasoko duzue email honetan:

hitzaho@udarregi.eus

Eguneko zentzoko zerbitzua esleitzeko lizitazioa martxan

Urriaren 18tik, Puntapax, adineko pertsonentzako Usurbilgo Eguneko Zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua esleitzeko lizitazio deialdira eskabideak aurkez daitezke 15 egun naturaleko epean, Usurbilgo Udalaren erregistroan. Hiru urterako esleipenaz ari gara, urtez urte bost urtetaraino luzatu ahalko dena. Esleipen kontratuaren espedientea aho batez onartu zuen udalbatzak urriaren 4ko ezohiko osoko bilkuran.

Kantaldia

Bihurri Ludotekan

“Mattin eta Mari Euskal Herria ezagutzera gonbidatuak izan dira eta beren bizipenak kontatuko dizkigute. Musika, abestiak, dantza, kontakizunak, asmakizunak eta abar”. Urriaren 27an ostirala, 18:00etan Bihurri Ludotekan.



Ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etan hasiko da ikuskizuna.

“Sexijentziak askatuz” antzezlanana eta solasaldia, ostiral honetan Sutegin

Sexu Aholkularitza Gunea ezagutzeko aukera ederra duzue ostiral honetan. “Sexijentziak askatuz” izeneko antzezlanana antolatu dute eta solasaldirako tarte zabalduko dute. Sutegin izango da ekitaldia, arratsaldeko 18:30ean hasita.

Ekitaldirako sarrera doakoa izango da baina aurrez gonbidapenak eskura ditzakezue Oiaro Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian, Artzabalen, Txirristran eta Aitzagan.



Arratsaldeko 18:30ean hasiko da antzezlanana.

Errigoraren kanpaina, martxan

Erriгорaren udazken parteko kanpaina abian da jada. Usurbilen, Etumeta AEK euskaltegiak, Udarregi Ikastolak eta NOAUA!-k bat egin dute beste behin egitasmo honekin. Gogoan izan, jasotako laguntzaren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintza suspertzera bideratuko da. “Lodosa, Tutereta eta Vianako ikastolen biziraupenerako, Erriberako AEK indartzeko eta D ereduko lerroak babesteko eta zabaltzeko dinamikak biderkatzeko”.

Otarren eskaerak ere kultur elkarte honen bidez bideratu ahalko dituzue, urriaren 26tik azaroaren 14ra. Ordainketak otarrak jasotzerakoan egin beharko dira, abenduan. Bi produktu kutxa izango dira aukeran; zuria eta beltza. Argazkien aldamenean dituzue otarren xehetasunak.

Karpa ibiltaria

Kanpainen zehar Errigoraren karpa bat ibiliko da herririk herri. Azaroaren 2, 3, eta 4an auzolan ariketa egingo dute Ablitasen. Jai giroan, saskiak prestatzera hurbildutako bolondresak batuko dira bertan.

Eskaerak

NOAUA!ren egoitzan, urriaren 26tik azaroaren 14ra. Informazio gehiago: errigora.eus



Kutxa zuria: Orburuak, zainzuriak, pikillo piperrak, ardoa, ozpina, melokotoia almibarrean, pasta, arroza, pikillo piper mamia, patxaran pastak, molineritoak, tomatea olioarekin eta teilak. Prezioa, 50 euro.



Kutxa beltza: Orburuak, zainzuriak, pikillo piperrak, ardoa, ozpina, melokotoia almibarrean, potxak, aran marmelada, mahats zukua, almendrak, oliba olio, pikillo saltsa, kardo. Prezioa: 50 euro.

Badator haurrentzako euskarazko zine zikloa

Sutegiko auditorioko butaketan eroso eseri eta euskarazko zineaz gozatzeko aukera eskainiko diete haurrei, Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartekoekin elkarlanean negu parterako antolatutako zikloari esker. Lehen proiektzioa, azaroaren

Serako antolatutako, 17:00etan Sutegin. “Pepper” filma eskainiko dute. “Pepper txakur berezia da: diru mordoa oinordetzan jasotzeaz gainera, hitz egiten ere badaki!! Bere dirua nahi duten lapurrek jazarria, babesa bilatuko du Singerdarren

etxean, familia guztiz bitxiaren ondoan”. Film proiektzioarako sarrerak egunean bertan, 3 eurotan erosi ahalko dira. Aurrerantzean eta udaberri partera arte, hilero lehen igandeetan, haurrentzako zinea euskaraz kultur etxeko auditorioan.

Luis Plaza irakasle kolonbiarra, arrisku egoeran

Ez da lehen aldia Luis Plaza irakasle kolonbiarra eta CUT sinkidatuko kidea erailtzen saiatzen direla estatuari loturiko indar paramilitarrek. “Orain arte lortu du heriotzari izkin egitea Kolonbiatik hainbat alditan alde egin eta gero. Usurbilen bi aldiz izan dugu, azkenengo aldiz euskararen aldeko Korrikan ere parte hartu zuen. Harridura handiz egin zituen Aginagako hainbat metro korrika bertan bizitzen giroarekin txundituta”, Lontxo Zubiriak NOAUA!ri aditzera eman dioenez. “Momentu gogorak ari da jasaten gaur egunean Luis, momentu oro dabilzki mertzenarioak atzetik. Egoera honen aurrean ezin dugu gauza askorik egin, berriz ere itxaropenez elkar ikusiko dugulakoan... Besarkada handi bat!”.



Luis Plaza irakasle kolonbiarra eta CUT sinkidatuko kidea.

Eskaintza oparoa Antxomolantxaren eskutik

Azaroan astebururo ekin-tzaren bat izango dute Aginagan, Antxomolantxa Elkartek antolatuta. Haste-ko, Martin bertso ikuskizuna haurrentzat, azaroaren 4an (larunbata), arratsaldeko 17:30etan Aginagako ludo-terekin. Sarrera doan.

Hurrengo irteera, Elgeako zerrara

Andatza M.K.T.-k finkatuak ditu urte amaierari begirako hitzorduak. Mendizaleek azaroa dute urteko erreferentziazko hilabetea. Gogoan izan Mendi Astea antolatzen dutela azaroa amaieran. Aurten ere hala egingo dute. Baina aurrez, hileroko txangoei dagokienez, Elgeako zerra bisitatzeko gonbita luzatu digute. Azaroaren 12rako iragarri duten irteerarako izen ematea zabaldu dute jada:



Azaroaren 12an Elgeako parajeetan ibiliko dira. Irteera honetan parte hartzeko izena eman behar da alde zurretik.

Elgeako zerrara txangoa

- Eguna: azaroak 12, igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 07:30etan Oiardo Kiroldegitik, autobusez.
- Zehaztasunak: "Azaroaren 12an Arabako Elgeako zerra ezagutzeko Larreatik Araiarraino joango gara".
- Izen ematea: azaroaren 8a baino lehen, 10 euroko ordainketa egin kontu zenbakio-tako batean:
Rural Kutxa: 30080259163005430321
Kutxabank: 20955069071068489805

- Oharrak:
 - Plaza kopurua, mugatua.
 - Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo dugu.
 - Janaria norberak eraman behar du.
 - Edaria Andatza M.K.T.-k eramango du.
 - Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derri gorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo dio-

gu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin harremanetan jarri andatza@hotmail.com helbidean".

Datozen hitzorduak

- Azaroak 12: Elgeako zerra.
- Azaroak 23, 25, 26: Mendi Astea.
- Abenduak 17: Hendaia-Ibar din.
- Informazio gehiago: andatzamendizale.info

Haimar Zubeldiaren omenez

Haimar Zubeldiaren lagunek eta jarraitzaileek omenaldia egingo diote azaroaren 18an. Bestelako ekitaldien artean, omenaldi bazkaria antolatu diote.

Bazkarirako txartelak, azaroaren 5a arte salgai

Omenaldi bazkaria Aginaga Sagardotegian egingo da,

eguerdiko 14:00etan hasita. Hara joateko doako autobus zerbitzua jarri asmo du antolakuntzak. Otordurako txartelak salgai izango dituzue Bordatxon azaroaren 5era arte. Bi menu izango dira aukeran:

- Helduentzat menua: 30 euro, sagardotegiko menua.
- Haurrentzat menua: makarroiak, oilaskoa, izozkia. 15 euro.

Erreboteko finala azaroaren 1ean jokatu da

Euria tarteko, bertan behera utzi behar izan zuten aurreko igandean Enrique Abril Errebote Txapelketako final handia. Gogoan izan, Zubieta Donibane Lohitzuneko Luzean taldearekin lehiatu behar zen. Neurketa azaroaren 1ean jokatu dute: 11:00etan Oiartzunen.

Eskubaloia

Kiroldegian

Urriak 28, larunbata

- 11:00 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Udarregi B-Ereintza
- 12:15 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Udarregi A-Eibar A
- 16:00 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Bera Bera
- 17:30 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Tolosa
- 19:00 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Tolosa

Futbola

Haranen

Urriak 28, larunbata

- 10:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Kostkas KE "A"
- 12:00 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Urnieta K.E.

Urriak 29, igandea

- 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Real Union Club SAD

Miriam Arrillaga, Gipuzkoako txapeldun

Gomazko lehen mailako paleta txapelketako Gipuzkoako txapelduna dugu Miriam Arrillaga Beloki aginagarra eta lehiakide izan duen Maider Mendizabal Azurmendi anoetarra. Zorionak!



Maider Mendizabal eta Miriam Arrillaga, sariak jaso berrikan.

Patxi
Patriarra jatetxea

bazkariak EGUNERO
afariak. asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperboru 8an. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

3 logelako etxebizitza alokatzen dut Muna Lurra kalean. 943 36 53 58 / 661 43 63 53

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661

115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperboru 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Ko-

txeko karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Astehenetik ostiralera, 08:00-15:00 artean haur zaintza eta etxeko lanetan aritzeko langile euskaldun bat behar dut. 656 730 759

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak egune-

ratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakume eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakume lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauz zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astehenetik ostirale-

Heriotzak

Juanjo Iparragirre Iturzaeta

62 urterekin hil zen urriaren 16an, Usurbilen



Jose Luis Sánchez Loureiro

50 urterekin hil zen urriaren 19an, Usurbilen



OHARRA: 2017ko azaroaren 3an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorian-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urriaren 30ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil.

Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatría laguntzaile

tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa

lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe.

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

BESTELAKOAK

Gitarra klaseak ematen dituen pertsona baten bila gaude. 657 795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 31 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 01 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Urriak 26 - azaroak 05

Osteguna 02 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 04 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 05 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

27 ostirala

- Tokikom Sariak Sutegin, 9:00-13:30.
- Musika saioa Bihurri ludotekan, 18:00.
- "Sexjentziak Askatuz" antzerkia eta solasaldia. 18:30ean Sutegin.
- Elkarretaratzea euskal presoen eskubideen alde. Mikel Laboa plazan, 20:00etan.

28 larunbata

- Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuko dira 19:00etan.

29 igandea

- Ordu aldaketa goizaldeko 3:00etan, 2:00ak izango dira.

Anerreka Ingurumen Elkartearen lehen bilera, ostiralean Potxoenean

U surbilgo herritar talde batek Anerreka Ingurumen Elkarte sortu du. "Elkarte honen xedea herriko lurra, aire eta uraren kalitatearen alde lan egitea da eta, ondorioz, guztion osasunaren alde. Talde irekia da eta momentu honetan helburu horri lotuta dauden egitasmoa eta plangintza osatzen ari gara".

Bilera irekia

Taldearen helburuak ezagutarazi eta martxan jarri asmoz, bilera ireki bat antolatu dute. "Gure helburuarekin bat bazatoz eta lantzeko prest bazaude, edo soilik informazioa jaso nahi baduzu, da-



"Herriko lurra, aire eta uraren kalitatearen alde lan egitea" izango da elkartearen helburua.

torren urriaren 27a ostirala, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean egingo dugun bilera irekira gonbidatu nahi zaitugu".

Tokikom Sariak Sutegin

Tokikom sariak ostiral honetan banatuko dira Sutegin. Goiz parteko jardunaldian bi solasaldi egingo dira.

- Urriak 27 ostirala.
- Orduetgia: goizeko 9:00etatik 13:30era.
- Antolatzaileak: Tokikom, NOAUA! Kultur Elkarte.

Musika Bihurri ludotekan

Olatz Korta eta Xabi Zubeldia Bihurri haur ludotekan arituko dira aste honetan. Euskal Herria ezagutzera etorri diren Mattin eta Mariren bizipenak azalduko dituzte.

- Urriak 27 ostirala.
- Orduetgia: 18:00etan.

Datozenak

Azaroaren 1ean, XXII. Artisautza Azoka

Aitzaga Elkarte azaroaren lehenean ospatuko den XXII. Artisautza Azoka antolatzeko prestaketa lan betean da. 11:00etan hasita, frontoian.



Frontoian ipiniko dute azoka.

"Islamofobia gure gizartean" hitzaldia

Tarana Karim SOS Arrazakeriako kideak eskainiko du hitzaldia. Azaroaren 2an osteguna, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Udala eta herritar talde baten eskutik.

Azaroaren 6an, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak deitutako datorren saioa, azaroaren 6an. Ohiko ordu eta lekuan; 18:00-20:30 artean Usurbilgo anbulatorioan.

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

lñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@lnakiiturgintza.com - www.lnakiiturgintza.com

600 024 825

URDAINTZI

eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

azaroak 3, Ostirala

Alejandro Tapia-ren OMENEZKO EKITALDIA



Non: Sutegi auditorioa.

Noiz: 19:00

Ondoren erakusketaren irekiera egingo da.

ERAKUSKETA:

Non: Sutegi erakusketa aretoan.

Noiz: azaroaren 3an: arratsaldeko 18:00etatik – 20:00etara.

Azaroaren 4, 5, 11, eta 12an: goizeko 12:00etatik – 14:00etara eta arratsaldeko

18:00etatik - 20:00etara. Azaroak 8, 9 eta 10ean: arratsaldeko 18:00etatik – 20:00etara.

Noaua! App

Herriko berriak beti soinean



Albisteak, agenda eta askoz
gehiago Noaua! app berrian.
Deskargatu doan eta jaso herriko
azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:



www.noaua.eu



azaroak 3, Ostirala 19:00

Alejandro Tapia-ren
OMENEZKO EKITALDIA
ERAKUSKETA irekiera



azaroak 5, Igandea 12:00

Kantu bertso Jira
Jon Maia eta Alaita
Martin Bertsolariekin



azaroak 4, Larunbata 11:00

Jakoba Errekondo-ren
Antton Olariaga-ren
LARRAREAK LANTZEN
Liburu aurkezpena



azaroak 5, Igandea 19:30

Handia
Filma



Noana!ren KULTURALDIA Azaroaren 3tik 12ra 2017



azaroak 9, Osteguna 19:30

Zuriñe Hildagorekin berriketan
Hitza ldi SOLASALDIA

azaroak 11, Larunbata 20:00

Ane Labaka (Bertsolaria) eta Beatriz Egizabal
(Antzerkilari / Ipuin Kontalaria)

ANTZEZLANA:
ERRADIKALAK GARA



azaroak 10, Ostirala 19:30

Orbel di dantzari



azaroak 12, Igandea 19:00

Joseba Tapia eta
Besamotzak taldearen
kontzertua

azaroak 3tik - 12ra,

ERAKUSKETA:
ALEJANDRO TAPIAREN LANAK

